



ZORRAK ATZERATZEKO/ZATIKATZEKO ESKAERA

Eskatzailearen identifikazioa

Abizenak eta izena edo izen soziala								
Identifikazio Fiskaleko Zenbakia (IFZ/AIZ)			Harremanetan jartzeko telefonoa					
Jakinarazpena egiteko helbidea	Bide publikoaren izena				Zk	Solairua	Esk.	Atea
	Posta-kodea	Herria		Probintzia				
Ordezkaria	Abizenak eta izena			IFZ/AIZ				

Gaitutako Helbide Elektronikoa (GHE) Apirilaren 5eko [PRE/878/2010 Agiduan](#), eta urriaren 1eko [39/2015 Legean](#), jasotzen denari jarraituz.

Lauki hau aukera ezazu prozedura honi lotutako jakinarazpenak Jakinarazpen Elektronikoen Zerbitzuaren bidez jaso nahi badituzu. Gaitutako Helbide Elektronikorik ez baduzu, zure helbide elektronikoa zehaztu ezazu eta lehenengo jakinarazpenarekin batera sortuko zaizu:

Zergarik gabeko zorraren identifikazioa

069 modeloaren frogagiri-zk	Zorraren zenbatekoa guztira:	
	Borondatezko epearen amaiera-data (ee/hh/uuuu):	

Atzerapenaren/zatikapenaren proposamena

Atzeratzeko/zatikatzeko zenbatekoa	Lehenengo epemugaren data (ee/hh/uuuu): (eguna 5a edo 20a izan behar da)
Eskatzen da atzerapena zatikapena, honako arrazoi hauengatik	
Zatitako zatikapean: %	
Zatitako zatikapean: %	Hilero Bi hilez behin Miru hilez behin Beste bat

Banku-helbideratzearen datuak

Kontuaren titularra	Identifikazio fiskaleko zenbakia (IFZ/AIZ)	Abizenak eta izena edo izen soziala
Helbidea	Posta-kodea	Herria
IBAN		IBAN zenbakia Zerga Administrazioaren Estatu Agentziari dirua biltzen laguntzen dion erakunde laguntzaile batena izan behar da. Kontsulta ditzakezu

Baimena

Lauki hau aukera ezazu Administrazio honek, prozedura hau bideratzeko, Administrazio Publikoek duten beharrezko dokumentazioa kontsultatzearen aurka agertzen bazara. Egiaztapenaren aurka agertuz gero, eskatzen zaizun informazioa bidali beharko duzu (Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28. artikulua, eta Diru-bilketaren Erregelamendu Orokorren 46. artikulua).

Gehitzen diren dokumentuak

069 MODELOA
BESTELAKOAK: _____

n, (e) ko ren e(an)

Sin.:

ZORRAK ATZERATZEKO / ZATIKATZEKO ESKAERA.

JARRAIBIDE OROKORRAK

Eskaera bete ondoren, Estatuko Administrazio Orokorreko edozein administrazio-organotako erregistroan aurkez ezazu, sinatuta, baita Correos-eko bulegoetan, Espainiak atzerrian dituen ordezkariak diplomatikoetan edo kontsuletxeetako bulegoetan eta indarrean dauden xedapenek ezartzen duten beste edozein erregistroan ere. Gertuen dauzkazun erregistro-bulegoak kontsulta ditzakezu

Eskaera bide elektronikoen bitartez aurkeztu beharko da Administrazioarekin derrigorrez horrela jarri behar denean harremanetan, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14.2. artikuluari jarraituz.

Latzeratzen edo zatikatzen diren zenbatekoek Aurrekontuei buruzko azaroaren 26ko 47/2003 Lege Orokorrean aipatzen den berandutze-interesa sortuko dute.

Eskatzaileak eskaera indartzeko egokiak iruditzen zaizkion dokumentuak eta ziurtagiriak gehituko ditu.

OHARRA

Eskaerak eskatzen diren baldintzak betetzen ez baditu edo aipatzen diren dokumentuak aurkezten ez badira, atzerapena/zatikapena bideratzeko eskumena duen organoak HAMAR EGUNEKO epean akatsa zuzentzeko edo derrigorrezko dokumentuak aurkezteko eskatuko dio eskatzaileari. Hala egiten ez badu, eskaeran atzera egin duela ulertuko da, besterik gabe artxibatuko da eta zorra premiamendu bidez eskatuko da.

Diru-bilketaren Erregelamendu Orokorraren 52.6. artikuluan ezarritakoari jarraituz, prozedura ebazteko eta amaitzen dioten egintzak jakinarazteko gehienezko epea 6 hilabetekoa da. Epe horretan ebazpenik jakinarazten ez bada, eskaera gaitzetsi dela ulertuko da dagokion errekurtsioa jartzeari edo berariazko ebazpenaren zain egoteari dagokionez.

DERRIGORREZ EMAN BEHAR DIREN DOKUMENTUAK

30.000,00 eurotik gorako zorretarako, eskatzaileak kreditu-erakundearen edo elkarren bermerako sozietatearen abal solidario gisa edo kauzio-aseguruaren ziurtagiri gisa eskaini beharko du bermea. Eskatzaileak aipatutako bermeak lortzea ezinezkoa dela frogatzen bada, Administrazioak beste berme batzuk onartu ahal izango ditu.

Abala denean, kreditu-erakundearen edo elkarren bermerako sozietatearen berariazko konpromiso ezeztazina erantsi beharko da. Abalatutako zenbatekoak zorra gehiena, dagozkion interesak eta bi zenbatekoen baturaren % 25a estali beharko ditu. Abal bidez edo kauzio-aseguruaren ziurtagiriaren bidez sortutako bermearen indarraldia gutxienez sei hilabetekoa izango da, bermatutako epea edo epeak amaitzen direnetik hasita.

Eskainitako bermea ez bada abala edo kauzio-aseguru, honako hauek aurkeztu beharko ditu:

- Abal hori edo kauzio aseguruaren ziurtagiria lortzea ezinezkoa dela erakusten duen erantzukizuneko aitortpena eta dokumentu bidezko froga, non hori lortzeko egin diren kudeaketak agertzen diren.
- Bermean eskainitako ondasunen balorazioa, enpresa edo profesional espezializatu independenteek egindakoa. Ondasun mota jakin baten balorazioan espezializatutako enpresa edo profesionalen erregistro bat dagoenean, balorazioa, ahal bada, erregistro horretan inskribatutako enpresa edo profesional batek egin beharko du.
- Itxitako azken ekitaldiko balantzea eta emaitza-kontua eta, halakorik bada, auditoretza-txostena, baldin eta legez kontabilitatea eramatera behartuta dagoen enpresaburua edo profesionala bazara.

Dispentsa osoa edo partziala eskatzen bada, honako hauek aurkeztu beharko dira:

- Ondasunik ez duela edo berme gisa eskainitakoak baino ez dituela adierazten duten erantzukizuneko aitortpena eta dokumentu bidezko frogak.
- Abala edo kauzio aseguruaren ziurtagiria lortzea ezinezkoa dela erakusten duen dokumentu bidezko frogak, non hori lortzeko egin diren kudeaketak agertzen diren. Azken hiru urteetako balantzea eta emaitza-kontua eta, halakorik bada, auditoretza-txostena, baldin eta legez kontabilitatea eramatera behartuta dagoen enpresaburua edo profesionala bazara.
- Bideragarritasun-plana eta eskatutako atzerapena edo zatikapena betetzeko aukera erakusten duen beste edozein informazio. Egoki iruditzen zaizkion gainerako dokumentu edo frogagiriak aurkeztu beharko dira, eta bereziki frogatu beharko da ordainketa ezarritako epean egitea galarazten dion zailtasun ekonomiko eta finantzariarik dagoela.

DATUEN BABESARI BURUZKO INFORMAZIOA

Europako Parlamentuko eta Kontseiluko 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 Arautegiaren (EB) 13. artikuluari eta Datu pertsonalen babeserako eta eskubide digitalak bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren 11. artikuluari jarraituz, jakinarazten dugu emango diren datu pertsonalak Ekonomia eta Ogasun Ordezkaritzak kudeatuko dituela prozedura honen izapide administratiboa bideratzeko. Prozesamenduei eta 15. eta 22. arteko artikuluetan ezartzen diren eskubideak erabiltzeko prozedurari buruzko informazio gehiago jaso ahal izango duzu honako esteka honetan:

SEPA zordunketa zuzenaren helbideratze-agindua
SEPA Direct Debit Mandate

Hartzekodunak bete beharrekoa

To be completed by the creditor

Helbideratze-aginduaren erreferentzia: _____

Mandate reference

Hartzekodunaren identifikatzailea: _____

Creditor Identifier

Hartzekodunaren izena/ Creditor's name

Helbidea / Address

Posta-kodea - Herria - Probintzia / Postal Code - City - Town

Herrialdea / Country

Helbideratze-agindu hau sinatuz, zordunak (A) baimena ematen dio hartzekodunari zordunaren erakundeari bere kontua zorduntzeko jarraibideak bidaltzeko eta (B) erakundeari bere kontuan zordunketak egiteko hartzekodunaren jarraibideei jarraituz. Bere eskubideen zati, zordunak bere erakundearen esku diru-itzultzea jasotzeko eskubidea dauka, horrekin sinatutako kontratuan ezartzen diren baldintza eta betebeharren arabera. Dirua itzultzeko eskaera kontuan zordundu eta hurrengo zortzi astetako epean egin beharko da. Zure eskubideei buruzko informazio gehiago eskura dezakezu zure finantza erakundearen.

By signing this mandate form, you authorise (A) the Creditor to send instructions to your bank to debit your account and (B) your bank to debit your account in accordance with the instructions from the Creditor. As part of your rights, you are entitled to a refund from your bank under the terms and conditions of your agreement with your bank. A refund must be claimed within eight weeks starting from the date on which your account was debited. Your rights are explained in a statement that you can obtain from your bank.

Zordunak bete beharrekoa

To be completed by the debtor

Zordunketa-kontuaren titularra / Charge account holder

IFZ:

Izena:

Helbidea / Address

Posta-kodea - Herria - Probintzia / Postal Code - City - Town

Herrialdea / Country

Kontu-zenbakia - IBAN / Account number - IBAN

Espanian, IBAN zenbakiak 24 posizio ditu, beti ES letrekin hasiz
Spanish IBAN of 24 positions always starting ES

Ordainketa-mota:

Type of payment

Ordainketa errepikakorra edo

Recurrent payment

or

Ordainketa bakarra

One-off payment

Data _ Herria:

Date - location in which you are signing

Titularraren sinadura:

Signature of the holder

EREMU GUZTIAK BETE BEHAR DIRA DERRIGORREZ.
HELBIDERATZE-AGINDU HAU SINATU BEZAIN LASTER HARTZEKODUNARI BIDALI BEHAR ZAIO, GORDE DEZAN.
ALL GAPS ARE MANDATORY. ONCE THIS MANDATE HAS BEEN SIGNED MUST BE SENT TO CREDITOR FOR STORAGE.